

BIZTANLERIAREN BANAKETA

1.-Nola kalkulatzen da biztanleria dentsitatea?

- a) Azalera/biztanle kopurua
- b) Azalera/berezko hazkundera
- c) Biztanle kopurua/azalera

2.-Bete hutsuneak liburuko 102. eta 103.ko orriak begiratzuz:

Biztanleria handieneko eremuak Espainian

Espainiako biztanleriaren banaketa oso _____ da. Autonomia-erkidego batzuek Espainiako batezbestekoa baino biztanleria-dentsitate _____ dute, 800 bizt./km²-tik gora ditu _____ Erkidegoak. Beste batzuk, berriz, hortik _____ daude: Gaztela eta Leon, eta Gaztela-Mantxa kasurako, _____ bizt./km² ditu bakoitzak, eta _____, 28 bizt./km².

Biztanleria txikieneko eremuak Espainian

Biztanleria-dentsitate txikieneko eremuak Iberiar penintsularen _____ daude. _____ txikieneko probintziak _____ eta _____ dira, 10 bizt./km² baino gutxiago dituzte. Gaztela-Mantxa, _____, Gaztela eta Leongo gainerako eremuak eta Aragoi ere biztanleria txikikoak dira, gehienek ez baitituzte gainditzen _____ bizt./km².

3.-Aukeratu aukera zuzena kasu bakoitzean:

Probintzia bakoitzaren barruan...

- Hirietan dago kontzentratuta biztanleria.
- Herrietan dago kontzentratuta biztanleria.
- Biztanleria kopuru bera dago hiri eta herrietan.

Zeintzuk dira biztanleria dentsitate handieneko hiriak?

- Bartzelona, Bilbo eta Burgos.
- Bartzelona, Madril eta Sevilla.
- Bartzelona, Madril eta Valentzia.

Nolakoa da berezko hazkundea Euskadin?

- Positiboa, jaiotza-tasa heriotza-tasa baino handiagoa delako.
- Negatiboa, jaiotza-tasa heriotza-tasa baino handiagoa delako.
- Negatiboa, heriotza-tasa jaiotza-tasa baino handiagoa delako.

Non dago kontzentratua biztanleria Euskadin?

- Hiriburuen inguruan eta kostaldean.
- Barnealdeko herrietan.
- Hiri txikietan.

Zeintzuk dira biztanle-dentsitate txikieneko eremuak Europan?

- Ekialdean eta mendebaldean.
- Hegoaldea eta ekialdean.
- Ekialdean eta iparraldean.

Europan biztanleriaren gehiengoa hirian bizi da, hamar europarretik...

- Hiru hirian bizi dira.
- Zazpi hirian bizi dira.
- Bost hirian bizi dira.